



Oihane Ruiz, Agurtzane Solaberrieta eta Arritxu Zelaia, prozesuen aurkezpenean.

Hizkuntza eta generoa hirigintza zeharkatzen

HAPOak euskararengan eta generoarengan izan ditzakeen eraginak sakon aztertzeko lanak abiatu ditu udalak: urtea bukatzerako espero dituzte emaitzak.

Hirigintzak euskararengan duen eragina eta genero ikuspegia aintzat hartzeko azterketak egingo ditu Usurbilgo Udalak: bi kanpo aholkularitza kontratatu ditu, biak ere HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean txertatuak izan daitezten. Bi azterlanak martxan dira dagoeneko, eta urte amaierarako bukatzea aurreikusten dute.

HAPOren idazketa betean dago udala: 2021ean hasieraz onartzea da asmoa. 2014ko maiatzean hasi zuen Plangintza Orokorra berrikusteko prozesua: orduetik, hainbat parte-hartze prozesu egin eta hainbat dokumentu onartu dira. 2015 amaieran, HAPO idazteko oinarrizko plangintzaren irizpide eta helburuak onartu zituen udalbatzak. Lau ziren: he-

rritarren parte-hartzearen beharra, hirigintza jasangarriaren eta ekologikoaren irizpideak barneratzea, genero ikuspegia aintzat hartzea eta hirigintzak euskararengan duen eragina neurtzea. Orain arteko prozesuetan presente egon diren irizpideak badira ere, oraingoan genero ikuspegia eta hirigintzak euskararengan duen eragina sakonago lantzea doa udala. Batetik, Arritxu Zelaia Etxeberria hizkuntza aholkulariak ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egingo du; hirigintza genero ikuspegitik aztertuko dute, berriz, Silvestrina kooperatibak, Dunak taldeak eta Col-lectiu Punt 6 kooperatibak, elkarlanean.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa

2014an du jatorria ELEk: orduan abiatu zituzten Lurralde eta Hizkuntza

jardunaldiak UEMAK, Kontseiluak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lurralde antolakuntzaren eta hizkuntza aldatetaren arteko harremana estua dela eta hirigintza proiektuek ELE moduko azterketa bat behar dutela nabarmendu zuten. Ordutik, hirigintza planek udalerrietako egoera soziolinguistikoan izan dezaketen eragina aztertzeko tresnak garatu dira, eta, iaiztik, derrigorrezkoa da plangintza orokorreko dokumentuetan halako azterketak egitea.

Zelaiak hainbat ebaluazio egin ditu orain arte, besteak beste, Orexan, Errezilen, Izurtzan, Zaratamon eta Munitibarren. Usurbilen arnasmune izaera nabarmendu du Zelaiak: herritarren %72 da euskalduna (Eustat, 2016). Kaxkoaz harago, Aginagan eta Zubietan aise gaintzen dute ehuneko hori, %88,35 eta %85,15 baitira euskaldunak, hurrenez hurren. Balorazio Batzorde bat sortu da, eta hori arduratuko da planak izan dezakeen eragina neurtzeaz eta, beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak proposatzeaz. Horrez gain, UEMAKo teknikariek elkarlanean arituko dira.

Hirigintza eta genero ikuspegia

Horrez gain, hirigintza eta generoaren arteko harremana lantzen esperientzia luzea duen lantaldea kontratatu du udalak. Oihane Ruiz Menendez (Silvestrina), Blanca Valdibia (Col-lectiu Punt 6), eta Koldo Telleria Andueza eta Amaia Albeniz Goikoetxea (Hiria Kolektiboa zenaren eta egun Dunak taldeko kideak).

Hasteko, Usurbilen azken urteetan egindako parte-hartze prozesuen azterketa sakona egin dute. Horren ostean, hainbat herritarrekin bildu dira, haien bizimodua eta naturarekin zein kalearekin dituzten hartu-emanak ezagutzeko. Hala azaldu zuen Ruizek: "Emakume jubilatuekin, udan espazio publikoan umeen zainketan aritu diren gazteekin, mugikortasuna eta ekologiarekin munduan dabilen emakume batekin... Beste herrialde batzuetatik etorritako jendea ere elkarriketatu dugu, emakume feministak, landa eremuak, jarduera ekonomikoak dituztenak...". Hurrengo pausoa udaleko teknikariek hitz egitea izango da, eta hortik osatuko dute irizpide zehatzak jasotzen dituen txostena.

Ruizen esanetan, Usurbilen "lanketa handia" egin da azken urteetan, eta eredu berri bati heltzeko asmoa nabari da, haren esanetan. "Hizkuntzaren zein generoaren eraginak neurtzea garrantzitsua da, biek eragiten baitute pertsonen bizimoduan".

Las posibles consecuencias del Plan General en el euskara y el género, a examen

El ayuntamiento de Usurbil ha contratado dos asesorías externas para poder ahondar en los efectos que el urbanismo tiene tanto en el idioma como en el género, y poder incorporar los al PGOU Plan General de Ordenación Urbana. El ayuntamiento está trabajando en el nuevo Plan General, el cual quiere aprobar inicialmente en 2021.

Tener en cuenta la perspectiva de género y evaluar las consecuencias del plan en el euskara son dos de los cuatro objetivos que el pleno del ayuntamiento aprobó a

finales de 2015, junto con la participación ciudadana y el respeto por los principios ecológicos.

Arritxu Zelaia Etxeberria será la encargada de dirigir la Evaluación del Impacto Lingüístico; un grupo de expertos en urbanismo y género analizarán el urbanismo desde el punto de vista del género, formado por miembros de la cooperativa Silvestrina, el grupo Dunak y el colectivo Col-lectiu Punt 6. Ambos trabajos están en marcha, y se prevé que estén terminados para finales de este año.

ARRITXU ZELAIA ETXEBERRIA, Hizkuntza aholkularia

“Arnasguneek arnasgune izaera mantentzeko tresna da ELE”

Hainbat herritan lan egin du Arritxu Zelaia Etxeberriak (Azpeitia, 1972) Eragin Linguistikoaren Eba-luazioa egiten: guztien artean biztanle gehien duen herria da Usurbil. Lantaldea osatua dago jada, eta, izatez, martxoan, itxieraren bezperan egin zuten lehen bilera.

Zer da ELE?

Edozein proiektuk hizkuntzan zer eragin izango duen neurtzeko tresna da. Etxebizitza berriak egiten badira, biztanle berriak etorriko dira, euskararen ezagutza maila desberdina izango dutenak, eta horrek eragina izango du, besteak beste, herriko ezagutzan. Prebentzio tresna bat da, batik bat, arnasguneei begira sortua, arnasguneek arnasgune izaera mantentzen segitzeko. Muturrera joaten gara: HAPOan aurreikusitako esku hartze guztiak eginez gero gerta daitekeenera hurbiltzen saiatzen gara. Eta eragina negatiboa dela ondorioztatuz gero, hori apaltzeko zer egin pentsatzen dugu.

Zer adierazle neurtzen dira ELE egiteko?

Indize batzuk ateratzen dira, eta, horien arabera, erabakitzen da inpaktuaren azterketa bat egin behar den edo ez. Etxebizitzen kasuan, denak beteko balira, jendea nondik etor litekeen aurreikusten da, batik bat, lehendik nondik etorri izan diren aintzat hartuta. Horrek ezagutzan zein eragin izan dezakeen aztertu, eta balorazio kualitatibo bat egiten da: zer eragin dezakeen komunitate bizitzan, kultur bizitzan, zerbitzuen eskaintzan, hizkuntza paisaian... Egingo den proiektuak zer ezaugarri jasotzen dituen ere kontuan hartzen da: salgai jarriko diren etxebizitzak eskuragarriak diren herritarrentzat, babes ofizialeko etxebizitzarik ba ote den...

Kaxkoa eta auzoak desberdinduko dituzue azterketa egiterako orduan?

Bai, hori da proiektu honen ezaugarrietako bat. Etxeak kaxkoan, Zubietan edo Aginagan egiteak eragin desberdina



Arritxu Zelaia Etxeberria

izan dezake. Printzipioz, saiatuko gara ahalik eta ikuspegi xehetuena izaten, errealitate bakoitzari dagozkion neurri zuzentzaile-rik egokienak hartu ahal izateko.

Orain arte egin dituzun ELE-etatik, Usurbil da biztanle gehien duena.

Bai. Biztanle kopuruak baldintzatzen ditu batzuen eta besteen beharrizanak. Herri txikiagoetan egoera konplikatuagoa da: euren erronketako bat biztanleak ez galtzea da; Usurbilen, bestelakoa da egoera. Presio handia dauka Donostia ondoan izanda: presio urbanistikoa, linguistikoa... Usurbilgo etxebizitzak Donostian iragartzen dira. Hona datorrena lotara edo paseo bat ematera baino ez badator, kaltegarria izango da herriarentzat. Etxeak merkeago daudelako etortzen direnak Donostiara bueltatzen dira ahal dutenean, lehenago edo geroago, eta hori ez da mesedegarria.

OIHANE RUIZ MENENDEZ, Arkitektoa eta Silvestrinako kidea

“Usurbil irteera postu oso pribilegiatu batean ikusten dut”

Etxeok jarritako izengoitia da Oihane Ruiz Menendez (Bilbo, 1974) kooperatibaren izena: Silvestrina. Arkitektoa ikasketaz, hirigintza du lan- eta hausnarketa-oinarri.

Zer esan nahi du genero ikuspegia hirigintzan txertatzeak?

Arkitektura eta hirigintza neutroak direla saldu izan digute, iturgintzaz ariko bagina bezala. Arkitektura eskolan, ez zegoen pertsonarik irudietan: dena zen oso formala, oso artistikoa, gizarterik gabe, gatazkarik gabe... Hirigintzak sortutako diskurtsoetan pertsonak eta bizitzak ez dira existitzen: kapitalaren kontsumitzaileak baino ez dira.

Zer esan nahi du bizitza erdigunean jartzeak, hirigintzaz hitz egitean?

Hirigintzaren egungo tresna eta logikei buelta eman behar diegula esan nahi du; are, sistema osoari. Eta erresistentziak hor daude. Generoak gizarteko alor guztie-

tan izan du eragina, baita hirigintzan ere: gizonak gizonen arkitektura egiten dute. Gure amonaren etxeok sukaldea handia zen, denok sartzen ginen, eta oraingo sukaldeak minimoetara murriztu dituzte, pertsona bakar batek lan egiteko. 50 urte pasatu ditugu sukalde horiek sufritzen. Adibide bat baino ez da. Hirietako auzoetan bizi diren zaharrek hitz egiten baduzu, esango dizute kalea arrotza zaiela: trafikoa dagoelako, zarata, laguntza behar izanez gero ez dutelako nori galdegin... Feminismoak planteatzen duenean kapitala kendu eta bizitzak jartzea erdigunean ez da soilik emakumeentzako proiektu bat eskatzen ari, gizarte osoarentzako baizik. Bestelako botere harremanak planteatu behar dira, ez soilik hirigintzan, askoz horizontalagoak: hori egin ezean, ezin da gainerakoa aldatu.

Elkarrizketak egiten ari zarete: zer moduz?

Oso ondo. Guretzat oinarri-oinarrizkoa da herritarrekin kontaktua izatea. Profil oso



Oihane Ruiz Menendez

desberdineko jendearekin egon gara. Alde batetik, beren bizitzako etapa desberdinetan herrian nola bizi izan diren galdetu diegu; ezagutzen dute gaurko Usurbil, badakite lehen beste era batekoa zela, eta, beraz, gerora bestelakoa izango dela. Eta, bestetik, pertzeptzioen mapak egiten saiatzen gara: alaitasuna, lasaitasuna eta edertasunarekin herriko zein eremu lotzen dituzten.

Nola ikusten duzu Usurbil?

Usurbil irteera postu oso pribilegiatu batean ikusten dut. Hirien orain arteko erdua ez-baian dago, gertutasunaren aldeko korronteak agertu dira, eta hori Usurbilek badauka: auzoak gertu daude, loturak eraikita daude. Beste erronka batzuk ditu, ordea: mugikortasun jasangarriaren nabaritzen dut badagoela lana, baita emakumeek espazio publikoan duten presentzia sinbolikoan ere, edo ekonomia feministaren alorrean.